



COVID-19 NEWSLETTER

Erresuma Batua 2020/06/10



INPAKTU EKONOMIKOA


Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an % -8,6	Inflazioa gaur egun % 0,9 2020rako aurreikuspena: % 1
Zerbitzuetako / Industriako PMI indizea maiatzean 29,0 / 40,7	Langabezia % 5,1 (maiatzeko aurreikuspena) Laguntza sozialak ia % 500 ugaritu dira (Universal Credit)


EUR / GBP kanbio-tasa (azken astean): 0,89

Inpaktua sektore industrialetan

Industriako PMI zerbitzuetakoa baino gutxiago jaitsi da elikagaien eta plastikoen eskaeragatik. Britainia Handiko enpresen laurden bat itxita egon dira aldi batez eta milioi erditik gora enpresak jakinarazi dute arrisku handian daudela

 **Automozioa:**
Berrito hasi dira ekoizten McLaren, Aston Martin, Bentley, Toyota, Rolls Royce, Ford, Morgan eta Vauxhall enpresen lantegietan; beste enpresa batzuek adierazi dute eurek ere laster berrekingo diotela ekoizpenari


Maiatzean 197 auto berri bakarrik ekoitzi dira herrialde osoan


 **Aeroespaziala:**
Ekoizpena etenda dago Safran enpresaren lantegian. Airbus arnasgailuak fabrikatzen ari da NHSrentzat eta Rolls-Royce-n lantegiak berriz ekin dio ekoizpenari (9.000 kaleratze iragarri ditu)

Energia

Energia arloko enpresei laguntzeko programak, ez ordaintzeei aurre egiteko

Inpaktua zerbitzuetan

 **Ostalaritza sektorea eta entretenimendua**
Itxita daude martxoaren 20tik, eta aurreikusten da uztailaren hasieran irekiko direla berriz. Jatetxe eta denda batzuek irekitzeko baimena dute, betiere 2 metroko distantzia gordez bezeroen artean

 **Burdinbideak**
Partzialki nazionalizatu dira, gutxieneko zerbitzuak eta konektagarritasuna bermatzeko. Transport for London enpresak aurreikusi du 4.000 milioi GBPko galerak izango dituela



Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ Interes-tasak: % 0,75etik % 0,1era murriztu dira
- ❖ Merkatuak: FTSE 100 indizea: % -11,71 (urte hasieratik hona)
- ❖ Ingalaterrako Bankuaren 350.000 milioi GBP-ko finantzaketa-ildoak

EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

Neurri fiskalak

- ❖ 30.000 milioi GBP-ko zerga salbuespenak
- ❖ Ostalaritza enpresak, txikizkako saltokiak eta entretenimendu sektorea salbuetsita daude EJZ (Business Rates) ordaintzetik
- ❖ EJZ ez da berriz ebaluatuko 2021ean
- ❖ BEZaren ordainketa 3 hilabetez atzeratu da
- ❖ Ingalaterrako udalek eta tokiko agintariak 1.600 milioi libera jaso dituzte koronabirusari aurre egiteko
- ❖ 50.000 liberarainoko laguntza berriak onartu dira Erresuma Batuko negozio txikientzat

Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)

- ❖ Zailtasunak dauzkaten pertsonak 3 hilabetez atzeratu ditzakete hipoteken ordainketak
- ❖ 330.000 milioi GBP banatuko dira gobernuak abalaturako bankuko maileguren bidez (ETEentzat eta enpresa handientzat)

Dirulaguntzak eta mailegu publikoak

- ❖ 10.000 eta 25.000 GBP-ko dirulaguntzak ETEentzat
- ❖ Startup-ek eta enpresa handienek estatuak babestutako 50 milioi GBP-rainoko banku-maileguak eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta 45 milioi GBP-tik gorako fakturazioa badute; neurri hori 1,25 mila milioi GBP-ko erreskate-plan baten barruan kokatzen da



Lan-indarra

- ❖ **Langileak:** gobernuak ordainduko ditu gizarte segurantzak eta pentsioak, hilean 2.500 GBP-ko soldata-mugarekin (urrira arte). Gaixotasunagatiko bajak lehen egunetik ordainduko dira (eta ez laugarrenetik). ETEei Covid-19agatikoko bajen gastuak itzuliko zaizkie (2 asteraino)
- ❖ **Autonomoak:** azken 3 urteetan lortutako batez besteko irabazien % 80ko dirulaguntza, gehienez 2.500 GBP hilean. Ez zaie dirulaguntza hori emango urtean 50.000 GBP baino gehiagoko irabaziak dituzten autonomoei. 2020ko uztailerako zergen ordainketa 2021eko urtarrilerara atzeratu da





MUGAK

Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa


-  Merkatu-gaien garraioak berdin jarraitzen du lanean
-  Herrialde barruko hegaldiak eta burdinbideetako zerbitzuak gutxitu egin dira. Maiatzaren 18az geroztik, trenen ohiko ordutegiaren % 70a berrezarriko da, hiritarrak lanera itzul daitezen beharrezkotzat jotzen badute

Biztanleriaren mugikortasuna

-  **Derrigorrezko itxialdia** herrialde osoan martxoaren 23tik. Ekainaren 1etik aurrera murrizketa gutxiago daude:  pertsonak kalera irten daitezke eta gehienez 6 laguneko taldetan bildu, betiere 2 metroko distantzia gordetzen badute euren artean

Herrialde osoko ikastetxeak zabalik daude ekainaren 1etik aurrera




Gomendatzen da:

- 
 - Atzerrian dabilzan **Erresuma Batuko biztanleak berehala itzultzea**
 - Ez irtetea Erresuma Batutik** guztiz beharrezkoa ez bada
 - Ekainaren 8tik aurrera iristen diren bidaiariek onlineko inprimaki bat behar dute bidaiatu baino 48 ordu lehenago, eta **14 eguneko berrogeialdia** egin behar dute

Gobernuk 75 milioi libera jarri ditu atzerrian zeuden herritarrak eta egoiliarak aberriratuko dituzten ezohiko hegaldiak pleitatzeko

Gobernuk iragarri du denda eta aire libreko merkatu guztiak irekiko direla ekainaren 15etik aurrera, eta autoen erakusketa-aretoak ere ireki ahal izango dira ekainaren 1etik aurrera

Mugetako egoera

-  Mugak irekita daude (portuak, aireportuak eta eurotunela)
-  **Itsasoko garraioa**
Brittany Ferries-ek Espainiarako eta Frantziarako bidaiarientzako zerbitzuak eten ditu uztailaren erdialdera arte
-  **Aireportuak**
Bidaiarientzako hegaldiak % 95 gutxitu dira. Aireportu batzuk ixteko arriskuan daude, hegaldiak % 90 baino gehiago murriztu direlako